

## Hezkuntza-erakuntza I: Oinarri teorikoak

Jaione Apalategi Begiristain  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2000

Apaindura dotorez kaleratutako liburu honen egilea, izenburuan iragarria datorrenez, Jaione Apalategi Begiristain emaztekoa da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Psikologia eta Pedagogiako Sailean irakasten duena eta une honetan bertako dekanorde-tza daramana. Erakunde honek argitaratzen duen euskarazko lehen liburua izaki, besterik gabe ere, zoriontzeko moduko gertakaria dugu hau, lehen urratsa emana baitago ondotik berriak etor daitezen.

Egileak berak hitzaurrean esaten duenez, Doktoretzako ikastaroetan eta beste mintegi zein hitzaldi batzuetan 1994 eta 1995 urteetan erabili eta eztabaidatutako gaiak biltzen dira Hezkuntzaren Erakuntzaz diharduen liburu gihartsu honetan.

Guztira 124 orrialde ditu eta gai nagusiaren azalpena 3 ataletan zatituta dator. Bere azalpen teorikoak ez daudela hutsean oinarrituta emanda jabetzeko, aski da azkenean datorren bibliografia espezializatu eta gaurkotua begiratzea. Beraz, egileak berak dioen bezala, trataera zientifikoa ematen zaion liburu akademiko baten aurrean aurkitzen gara, zeinetan teoriak sailkatuz eta kontzeptuak zehaztuz, urratsez urrats, Hezkuntzaren Erakuntzari buruzko oinarri teorikoak finkatzen baitira. Bere kidetasunengatik edo, errazegi nahastu ohi ditugun kontzeptuen artean beharrezko argitasunak ematen zaizkigu bertan. Beharrezko aurrelana hauxe, anbigutasuna adiskide txarra baita bidaia zientifiko bati ekin behar zaionerako.

Gaiari dagokionez, esana dator izenburuan, hezkuntzaren erakuntzari buruz da diskurtsoa. Lehen atalean, hezkuntza-erakuntzaren bilakaeraz azalpen historiko zehatza egiten da, Lussato (1977), Kliksberg (1979), Owens (1976) eta Muñoz Garduño (1986) autoreek egiten dituzten sailkapenen harira egin ere. Ateratzen den ondorioa da hiru aro bereizi ohi direla: zientziaurrekoa, trantsiziokoa eta zientifikoa. Bistan da, hemen hezkuntza zentzu zientifikoan ulertzean, enpresa baten modura antolatutako erakunde batez ari garela hitz egiten, lan-munduan aplikatzen den eredu taylorista edo fayolistaren antzera, non, weberiar burokraziari leku handia emanda, guztien gaintetik, eraginkortasunaren irizpidea nagusitzen baita. Eskola, izan, enpresa bat gehiago da. Bestalde, eskola-erakuntzaren orde, hau baino harago doalako, hezkuntzarena hobesten du egileak, azken kontzeptu hau bere zentzurik zabalenean –formalean zein informalean– erabiliz.

Bigarren atalean, orokorrean zientziaren gainean eraiki diren teoria, paradigma eta ereduak lantzen dira, hauen artean, Bunge, Toulmin, Touraine eta Khunenak. Atalik luzeena ezezik landuena ere, azkeneko hauxe da, zeinetan hezkuntza-erakuntzari buruz nazioarteko mailan eraikiak izan diren eta egun indarrean dauden teoria eta eredu desberdinak konparatzen baitira eta aztertzen. Egileak lau paradigma nagusitan sailkatzen ditu erakuntzari buruzko ikuspegiak.

Hezkuntza-erakuntzaren teoriak lantzen hasten direneko lehen aroan, enpresaurreko metaforak nagusitzen dira, prezientifikoak, alegia. Hor sartzen dira Platonen *Errepublika*, Luis Vives, Comenius eta beste hainbaten idatziak, edota Pestalozzik eta Basedowek sortutako eskolak, etab. Ikuspegi prezientifiko honek 1950. urtea arte irauten du, ingeniari-tza industrialeko printzipioak hamarkada honetan hasten baitira aplikatzen eskoletan. Bigarren paradigmak erakuntzaren teoria klasikoei dagozkienak dira, zeinetan hiru eredu-sistema kontrajartzen baitira: batetik, Taylor, Fayol, Weber eta neoklasikoei landutako sistema itxia, teoria arrazional eta burokratikoari atxikia dagoena; bestetik, sistema naturalen ereduak, giza baliabideak eta motibazioak aintzakotzat hartzen dituena eta giza harremanetan edota, Kurt Lewinek dakarrenez, talde-dinamikan sustraituagoa dena; azkenik, sistema irekien ereduak, teoria estrukturalen eta sistemikoan gauzatzen dena. Lehenengoa Parsons, Etzioni, Blau, Scott eta Hage bezalako autore klasikoek garatzen dute eta bigarrena, berriz, Bertalanffy, Colon eta beste modernoago batzuek. Hirugarren paradigmaman, ikuspegi interpretatibo-sinbolikoan oinarritzen diren teoria modernoak jasotzen dira, zehazki, Weich, Meyer eta Rowanek landutako anarkia-erakuntzaren ereduak, –helburu, teknologia eta partehartze zehazgabe eta ilunak erabiltzen dituena–, eta lotura ahuleko sistemarena, –hau Katz eta Kahnnek landua–, zeinetan kontrola, batik bat, irakasleak kontratatzeke orduan, ikasleek dituzten egitekoetan eta ordutegietan ezartzen baita. Azkenik, laugarren paradigmaman, egileak hezkuntza-erakuntzari buruzko teoria kritikoak dakartza. Hemen lantzen diren metafora alternatiboak, eredu makropolitikoari eta mikropolitikoari da-

gozkienak dira. Eredu honetan kokatzen ditu egileak, –besteak beste, Mariano Fernández Enguitaren eskemari jarraiki–, Hezkuntzaren Soziologian landu ohi ditugun erresistentziaren teoriak, hezkuntza-sisteman parte hartu eta barrutik demokratizatzeko joerak, curriculumari buruzko jarrerak, Espainiako Estatuak hezkuntzaren sailean egindako erreforma desberdinak (LEG, LODE, LOGSE), ikastetxeak, irakasleak nahiz ikasleak ebaluatzeke sistemak, etab.

Jaione Apalategi irakasleak, paradigma horien azalpen zehatza egin ondoren, bere ikuspegia zein den agertzen du. Sistema irekien aldekoa agertzen da, bere ikerketak eredu sistemikoaren bidetik zuzenduz. Aukera hau zergatik egiten duen ere esaten digu 117. orrialdean: «Areago oraindik, uste dugu eredu sistemikoaren ekarpena funtsezkoa dela erakuntza guztiak, oro har, eta hezkuntzazkoak, bereziki, garatzeko. Sistema irekien ereduak, sistema natural eta arrazionalen ereduarekin batera, mapa sinoptiko eta kontzeptuala izango litzateke, plano gidari moduko bat, erakuntza bakoitzak bere gain hartutako helburuak betetzera iristen laguntzeko».

Dena den –ohar hau ere berea da– ikerketa-estilo honek ezingo du ahaztu bere ingurunea. Adibidez, euskal irakaskuntzari buruzkoa ezingo da aztertu euskararen egoera soziolinguistikoa ezagutu gabe. Maila honetan, “Eskola Erakuntza eta Hololinguistika” izeneko bere tesi doktora (1994) irakurri eta epaitzean egiaztatu ahal izan nuenez, euskararen testuinguru soziologikoa oso hurbiletik zaintzen duen Sánchez Carriónen eredu hololinguistikoa du gidari eta, euskal irakaskuntzari buruz, oso ondorio baliagarriak ateratzen ditu bertan.

Esanak esan, ideia hauen guztien garapena zuzenean ikusi eta aztertu ahal izateko, liburuan bertan baneratu beste biderik ez da geratzen. Seguru nago hasieratik bukaeraino irakurtzen duenak –irakurlea gaiak erakurtzen badu bederen– informazio asko eta ona jasoko duela. Zientzi lanetan dabilenari ezin zaio gehiago eskatu. Lanerako erreminta preziatua eskaini digu Jaione irakasleak. Eta harenetik espero ditugu berriak ere.

Orain arte, azalpen hutsean jardun gara. Azkenean, ordea, liburuaren azken orrialdera iristen zarenean, nahi gabe ere, gogoeta batzuk bururatzeko zaizkizu, bidean ohar batzuk idatzita uzten dituzu, esaldi batzuk azpimarratuta. Nik, egia esan, ezer gutxi daukat kritikatzeko edo, zuzenago esan, baxterez; aitzitik, lan hau goraiatzeko arrazoi bat baino gehiago dut.

Hasteko, iruditzen zait ekarpen serioa dela, testu-liburu gisa unibertsitate-mailako euskal curriculum osatuz joateko, batez ere. Gai akademiko espezifikoa lantzen diren liburuen apala handituz joan ahala, euskara prosa akademikoaren alor elkorrean aurreratuz doa. Arian-arian, ur-tantak bezala, bere bidea egingo du.

Edozein hizkuntzarako ikasleentzat testu idatzia eskuarteaz izatea laguntza estimagarria izaten da. Unibertsitate-ikasketak euskaraz egiten dituztenentzat testu-liburua ezinbesteko erreferentzia bihurtzen dela esango nuke, horrelako argitalpen batek ideiak euskaraz hausnartu, eztabaidatu, adierazi eta formulatzeko bidea errazten baitu eta, aldi berean, prosa akademikoari dagokion estilo berezia estandarizatzeko ildo irekita geratzen baita. Gero beti egongo da, iturri berrien eta beste curriculumeko moldaeraren beharren arabera, testua hobetuz joateko aukera eta beharra.

Zehaztasuna eta ulergarritasuna dira horrelako lan akademiko batean eskatzen diren baldintzarik beharrezkoenak. Esan behar dut bi bertute horiek ederki asko beteta ikusiko dituela bertaratzeko irakurleak eta, bereziki, gai horri helden dion ofizialkoak, hau ikasle zein irakasle izanik. Niri behintzat ulertteraza gertatu zait hasieratik burura. Kontzeptu-sare konplexuz kargatutako prosa tekniko bati buruz hori esan ahal izatea, asko esatea dela uste dut, nahiz literatura soilki irakurtzera ohituta dagoenak besterik pentsatuko duen. Oraindik asko dira –gehiegi– euskal letrak literaturarekin berdintzen dituztenak.

Irakasleari bere azalpen-lanetan ahalik eta metodorik argienak erabiltzea tokatzen baitzaio, liburu honek alderdi didaktiko honetatik begirata ere, badu bere ekarpen estimagarria. Teoria desberdinak azaldu ondoren –eta hau sistemaz egiten du egileak–, grafikoen bidez ematen ditu labur-bilduta ezaugarri nagusienak. Guztira, baditu 9 grafikoko bere kabuz horrela eratuak, zalan-tzarik gabe, testuaren ulerpenerako argitasun handia ematen dutenak.

Gabeziaren bat aipatzekotan, oinarriko kontzeptuez osaturiko hiztegitxo baten eza aipatuko nuke. Egokia izanen litzateke, gai espezifikoa landuz joan ahala, kontzeptu desberdinen edukia zehaztea eta horien euskarazko baliokidea finkatzea. Gai espezifikoko guztietan horrelaxe egingo balitz, azkenerako diziplina desberdinetan hiztegi tekniko biziki baliagarria osatuko litzateke. Esate baterako, zergatik hautatzen da hor testuan erakuntza, antolaketaren ordez? Zergatik balore ez eta balio bai? Eta abar. Hurrengo baterako proposamena egina geratzen da.

*Paulo Iztueta Armendariz*